

GAZTEAK ETA GIZARTEA KEXA-GUTUNA



DBHko 3. maila. Hizkuntzen Tratarera Bateraturako materialak
IRAKASLEENTZAKO MATERIALA

PROIEKTUAREN JUSTIFIKAZIOA

ARGUDIO-TESTUAK

1. Argudio-testuen kokapena

Argudio-testua argudiaketaren adierazpen linguistikoa da eta gure gizartean egunero erabiltzen den testu-tipoa da. Argudiaketak konbentzitzea du helburu, hau da, igorleak defendatzen dituen ideiei edo tesiei solaskideen atxikimendua lortu nahi du. Horretarako, arazo konkretu bat planteatu eta hainbat argudio erabilia konklusio zehatzetara ailegatzeko asmoa adierazten da. Zein argudio aukeratu eta horiek zelan antolatu igorlearen helburuan eta hartzailearen nortasunean datza.

Tipologia guztietan argudio-testua testu-tipo bereizitzat hartzen da eta, beste batzuen artean, honako hauek dira argudio-testuen ezaugarri behinenak:

- helburua hartzailea konbentzitzea da, eta horretarako honako oinarrizko egitura hau da erabiliena: premisak+tesia+argudioak.
- igorleak, bere teoria(k) defendatzeko, hartzailearen tesia zalantzan jarri beharko du, eta hori lortzeko ez ditu hartzailearen ezagupenak moldatu beharko, berak dituen aburuak baino.
- testuen izaera dialogikoa da: lehenengo eta bigarren pertsonak solaskide konkretuei egiten diete erreferentzia, baina rol horiek trukagarriak izan daitezke.
- igorleak ideiak edota kontzeptuak nola lotzen eta antolatzen dituen erakartzen du hartzailearen arreta.
- testua leku eta denbora konkretuei lotua dago.
- ahozkoa denean, hartzailearekin kolaborazioan josten da eta bere erreakzioak kontuan hartuta, diskurtsoa moldatuz joan daiteke.

2. Argudio-testuen interes didaktikoa

Unitate didaktiko honen helburua argudio-testuak lantzea da. Testu-tipo hau, bai ahozkoan bai idatzizkoan, ikasleen bizitzan ageri da oso ume-umetatik, eskolan zein eguneroko harremanetan.

Testu-tipo honekin lan egiteko era sistematizatzea argudiaketaren estrategiak ezagutarazteko lagungarria izango da. Eta adibide eredugarriak izateak honako honetara lagunduko die ikasleei:

- ✓ datuak eta iritziak bereizten.
- ✓ norberaren usteak benetako argudioen bitartez azaltzen, falaziak baztertuz.
- ✓ Kontra-argudiaketarekin loturik dauden estrategiak garatzen.
- ✓ ...

Azken batez, bere iritzi berekoak ez diren hartzaileekin solasaldi errezago eta orekatuagoa izateko baliabideak eta estrategiak garatuko ditu.

Argudiaketaren gaitasun linguistikoak lantzeak eragin bikoitza du: **banakoa** (pentsamenduaren garapena erraztea) **eta soziala** (indibiduen partehartzea erraztea gizartean eta, inolako erreflexiorik gabe, gehiengoaren iritzia onartzea ekiditzea). Bestera esanda, argudio-testuen ulermena eta ekoizpena lantzeak eta tesia aurrera eramateko edo deuseztatzeko mekanismoak erabiltzeak iritzi kritikoaren eta ezagutzaren autonomiaren garapenari laguntzen diote

HIZKUNTZEN TRATAERA BATERATUA

3. DBHrako PROIEKTUA

EUSKARA/GAZTELANIA/INGELESA

3. DBHrako proposatzen dugun proiektu honek (*Gazteak eta Gizartea*) Hizkuntzen Trataera Bateratua deritzon programaren ildoari eusten dio. Ikasleek hiru argudio-genero landu eta gauzatuko dituzte H1, H2 eta H3an; horretarako, argudio-testuen edukiak eta trebetasunak euskara, gaztelania eta ingelesa ikasgaien artean banatuko ditugu.

KOMUNIKAZIO-EGOERAREN DESKRIBAPENA

Gazteek helduen munduarekin dituzten harremanak asko aldatu dira azken urteotan.

Haiek euren gurasoekin gaur egun dauzkaten harremanak ez dute zerikusirik guk gurasoekin izan genituenekin edo gurasoek euren gurasoekin izan zituztenekin. Eta gauza bera gertatzen da parekoen arteko harremanekin edo instituzioekiko harremanekin.

Nerabeek gure gizartean dauden hainbat errealitate onargarri antzematen dituzte, baina hainbat injustizia ere. Eta laguntzeko prest daude. Horregatik, gai horiei buruzko solasaldietan parte hartzeko prest daude.

Ikasleek besteen aurrean euren ustea muga dezaten eta iritzia defenda dezaten, ondo informaturik egon beharko dira eta gizartean eztabaidatzen diren gaiei buruzko baliozko argudioak eraikitzen ikasi beharko dute.

Euren intereseko hainbat gai landuz gero, hiru ekoizpen gauzatuko dituzte ikasleek: H1ean, edozein motatako injustizia gaitzetsiko duen kexa-gutuna ekoiztuko dute ikasleek; H2an, mahai-ingurua rol ezberdinak interpretatuz; eta H3an, berriz, gazte-tribu edo talde marjinal baten aldeko foileto limurtzailea. Ekoizpen guztiak errealak izango dira eta publiko jakin bati zuzenduak.

PROIEKTUAREN ARDATZ KOMUNA

Tipoa: Argudio-testua

Eremua: Hizkuntza instituzioetan

Komunikabideetako hizkuntza

Gaia: Gazteek helduen munduarekin dituzten harremanak

HELBURU OROKORRAK

- Argudio-testuei dagozkion ezaugarriak ezagutzea eta erabiltzea.
- Kexa-gutuna, mahai-ingurua eta foileto limurtzailearen ezaugarriak ezagutzea eta erabiltzen jakitea.
- Ahozko edota idatzizko komunikazioaren estrategia linguistiko eta ez-linguistikoak ulertzea eta erabiltzea hartzaileak konbentzitzeko.
- Argudio-testuei dagozkien gizarte konbentzioak eta errespetuzko arauak kontuan hartzea.

OINARRIZKO GAITASUNEN GARAPENA

Erkidegoko curriculum berrian argi adierazten den legez, oinarrizko hezkuntzaren helburua honako hau da: pertsona helduak heztea, euren ibilbide akademiko edo profesionalean aurkituko dituzten edozein egoerari aurre egiteko gai izango diren pertsonak heztea. Horretarako, eskolaldian landuko diren irakasgai guztiek, hizkuntza-irakasgaiak barne, oinarrizko zortzi gaitasunak garatzeari lagundu behar diote, gaitasun horiei esker, pertsonaren errealizazioa, garapena, herritartasun aktiboa eta gizarte-integrazioa lortuko baitira.

Kurrikulum berri horretan haxe jotzen da oinarrizko gaitasuntzat: “jakintzen, trebetasunen, jarreraren eta balioen elkarrekintza bateratua eta testuinguru bakoitzari egokituia, Oinarrizko Hezkuntzak ikasle guztiek xedetzat izan eta lortu beharrekotzat jotzen dituztenak, pertsonaren errealizazioa eta garapena lantzeko eta herritartasun aktiboa eta gizarte-integrazioa lortzeko”.

Dakigunez, hizkuntzek garatzeko balio dute curriculum berriak ikasleen garapen pertsonal eta intelektuala lortzeko beharrekotzat jotzen dituen oinarrizko gaitasun guztiak “tresna pribilegiatuak baitira komunikatzeko, mundua irudikatzen, gizartean txertatzeko, sentimenduak adierazteko eta sormena sustatzeko”.

Proposatutako HTB proiektua, ikasleen oinarrizko gaitasun horietatik gehienak garatzeko asmoarekin gauzatzen ari da. Hori dela eta, proiektu honetako ariketetan honako gaitasun hauek landuko dira argi eta garbi:

- **Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna.**
- **Ikasten ikasteko gaitasuna.**
- **Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna.**
- **Gizarterako eta hiritartasunerako gaitasuna.**
- **Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna.**

Ez da ahaztu behar, unitateak hobetu eta zabaldu daitezkeen proposamenak baino ez direla. Ondorioz, aipatutako gaitasunez aparte falta direnak ere lantzea posible izango litzateke.

H1: EUSKARA

Kexa-gutuna: *Gazteak eta gizartea.*

Ikasleek, taldeka bildurik, bazterkeria edo injustiziaren kontrako kexa-gutuna idatziko dute. Denuntzia horretan, erakundeek arazo horri aurre egiteko ezarri daitezkeen gutxiengo neurriak aldarrikatuko dituzte eta eurek proposatutako irtenbideak aipatuko dituzte.

KOMUNIKAZIO-EGOERA

Gaia: **Gazteek helduen munduarekin dituzten harremanak.**

Igorlea: **Hirunaka bildutako ikasleak.**

Hartzailea: **Erakundeak edo hedabideak.**

Kanala: **Idatzia.**

Asmoa eta helburua: **Gizartean puri-purian dauden eztabaidagaiez jardutea.**

Argitalpen lekua: **Instituzioetan edo hedabideetan.**

Eremua: **Hizkuntza instituzioetan. Hizkuntza gizarteko komunikabideetan.**

TESTU GENEROEN ERREPERTORIOA

<ul style="list-style-type: none">• Iritzi-artikuluak• Iragarkiak• Instrukzioak• Zuzendariari gutunak• Manifestuak• Dekretuak• Aldarrikapen instituzionalak	<ul style="list-style-type: none">• Definizioak• Elkarrizketak• Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutua• Azalpenak• Kexa-gutunak
---	--

UNITATEAREN BIZKARREZURRA

0. jarduera. Motibazioa eta negoziazioa

1. LAN-SEKUENTZIA. ARGUMENTATZEA, ZER DA?

1. jarduera. Testuak aztertzen.
2. jarduera. Argumentatzea, zer da?
3. jarduera. Argudio-testuak aztertzen.

2. LAN-SEKUENTZIA. TESIA ETA ARGUDIOAK

4. jarduera. Zer defendatuko dugu?
5. jarduera. Gure argudioak, zeintzuk dira?
6. jarduera. Arrazoi guztiak balio al dute?
7. jarduera. Argudioei aurre egiten.
8. jarduera. Zuen tesiak eta argudioak, zeintzuk dira?

3. LAN-SEKUENTZIA. KEXA-GUTUNA, NORENTZAT?

9. jarduera. Testuaren egokitasuna.
10. jarduera. Egokitasuna eta gutunaren atalak.
11. jarduera. Kexa-gutun formala, norentzat?

4. LAN-SEKUENTZIA. ARGUDIO-TESTUA IDATZIKO DUGU

12. jarduera. Informazioa bilatu.
13. jarduera. Gure argudio-testua.
14. jarduera. Kohesio-elementuak.
15. jarduera. Modalizazio-markak.
16. jarduera. Egindakoa birpasatu.

5. LAN-SEKUENTZIA. KEXA-GUTUNA EKOIZTEN

17. jarduera. Kexa-gutun formala, nolakoa da?
18. jarduera. Lehen zirriborroa.
19. jarduera. Azken ekoizpena.

Auto-ebaluazioa



HELBURU DIDAKTIKOAK

1. Testu-tipoa eta testu-genericoa bereiztea; argudio-testuak partekatzen dituzten ezaugarriak bereiztea.
2. Argudio testuetan, gaia, tesia eta argudioak bereiztea.
3. Argudio-motak bereiztea eta egoera bakoitzean eraginkorrenak eta onargarrienak zeintzuk diren argi izatea.
4. Besteen argudio desegokiak deusestatzeko gai izatea.
5. Argudio-testua hartzaileari egokitzea.
6. Kexa-gutunak genero gisa dituen ezaugarri behinenak identifikatzea eta erabiltzea.
7. Gutunaren atalak bereiztea eta erabiltzea.
8. Informazio egokia bilatzea eta azken produkzioari begira aukeratzea.
9. Ekoizpena planifikatzearen garrantzia ulertzea.
10. Talde-lanean eztabaidatzen jakitea.
11. Kohesio-elementuak zuzen erabiltzea.
12. Testuetan agertzen diren modalizazio-markak bereiztea eta testuetan erabiltzea.
13. Hausnarketa linguistikoa bultzatzea.
14. Ikaskideek esaten dutena errespetatzea (lana eta iritziak).
15. Lana planifikatzea eta ondo garatzea.
16. Azken ekoizpena txukun eta modu erakargarrian aurkeztea, eta komunikazio-egoerari egokituta.
17. Ikaskideak kritikatzeko eta kritikak onartzen jakitea.

EDUKIAK

KONTZEPTUZKOAK	PROZEDURAZKOAK	JARRERAZKOAK
<p>Argudio-testuak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Argudiaketaren ezaugarriak behinenak • Gaia eta tesia • Argudio motak • Argudio onargarriak eta falaziak • Kontra-argudiaketa • Argudio-generoak <p>Kexa-gutuna</p> <ul style="list-style-type: none"> • Hartzaileari egokitasuna (erregistroa) • Atalak eta egitura <p>Testuaren ekoizpena</p> <ul style="list-style-type: none"> • Kohesio-elementuak: testu-antolatzaileak, puntuazio-markak • Modalizazio-markak • Transferentzia negatiboak 	<ul style="list-style-type: none"> ◦ Argudio-testuen ezaugarriak aztertzea kontrol-orrien bidez ◦ Argudio-testuen irakurketa erreflexiboa egitea ◦ Kexa-gutunaren gaia erabakitzea ◦ Salatu nahi den egoeraren informazioa biltzea eta aukeratzea ◦ Defendatutako tesiari laguntzen dioten argudioak antolatzea ◦ Testu koherentea lortzeko egitura, kohesio-elementuen eta modalizazio-marken erabilera aztertzea ◦ Ekoizpenaren plangintza egitea ◦ Argudio-testua gutunaren formatorik egokitzea ◦ Ekoizpenak aztertzea kontrol-orrien bidez 	<ul style="list-style-type: none"> ◦ Ikaskideak errespetatzea ◦ Talde-lanetan eztabaidatzen jakitea ◦ Besteen ideien adierazpenen aurrean jarrera ireki eta errespetuzkoa izatea ◦ Interesa eta gogoia erakustea lana ahalik eta modurik erakargarrienean aurkezteko ◦ Komunikazio-arauak baloratzea eta errespetatzea ◦ Azken ekoizpena txukun eta modu erakargarrian aurkezteko interesa izatea

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

1. Argudio-testuak identifikatzeko gai da.
2. Kexa-gutuna beste argudio-genero batzuetatik bereizteko gai da.
3. Gaztelaniaren eraginari loturiko transferentzi okerrak zuzentzeko gai da.
4. Argudio-testuetan, gaia, tesia eta argudioak bereizteko gai da.
5. Besteen argudio desegokiak deusestatzeko gai da.
6. Argudio-testua hartzaileari egokitzeko gai da.
7. Kexa-gutunaren ezaugarri linguistikoak, diskurtsiboa eta soziolinguistikoak era egokian erabiltzeko gai da.
8. Gutunaren atalak bereizteko eta ondo erabiltzeko gai da.
9. Informazio egokia bilatzeko eta azken produkzioari begira aukeraketa egokia egiteko gai da.
10. Azken ekoizpena ondo planifikatzeko gai da.
11. Talde-lanetan errespetuz eztabaidatzeko eta besteen iritziak onartzeko gai da.
12. Kohesio-elementuak identifikatzeko eta ondo erabiltzeko gai da.
13. Testuetan agertzen diren modalizazio-markak bereizteko eta testuetan erabiltzeko gai da.
14. Hizkuntzari buruz hausnartzeko gai da.
15. Ikaskideek esaten dutena errespetatzeko gai da.
16. Azken ekoizpena txukun, ondo antolatuta eta hartzaileei ondo egokituta aurkezteko gai da.
17. Ikaskideak kritikatzeko eta kritikak onartzeko gai da.

NOLA EBALUATU

Kexa-gutuna gauzatzeko prozesua eta azken emaitza bera baloratu beharko dira.

1. Ekoizpenak azken emaitzaren % 50 balio lezake.
2. Ikasle bakoitzak unitatean ikasitako eduki kontzeptualak eta prozedurazkoak proba bidez baloratuko zaie eta azken emaitzaren % 30 balio lezake.
3. Klasean egindako lanak, unitatean bertan daude hori ebaluatzeko jarduerak, azken emaitzaren % 20. balio lezake.

BAKOITZEAN EBALUATUKO DENA	
KEXA-GUTUNA	<p>6. Argudio-testua hartzaileari egokitzeko gai da.</p> <p>7. Kexa-gutunaren ezaugarri linguistikoak, diskurtsiboak eta soziolinguistikoak era egokian erabiltzeko gai da.</p> <p>8. Gutunaren atalak bereizteko eta ondo erabiltzeko gai da.</p> <p>9. Informazio bilatzeko eta azken produkzioari begira aukeraketa egokia egiteko gai da.</p> <p>16. Azken ekoizpena txukun, ondo antolatuta eta hartzaileei ondo egokituta aurkezteko gai da.</p>
PROBA	<p>1. Argudio-testuak identifikatzeko gai da.</p> <p>2. Kexa-gutuna beste argudio-genero batzuetatik bereizteko gai da.</p> <p>4. Argudio-testuetan, gaia, tesia eta argudioak bereizteko gai da.</p> <p>5. Besteen argudio desegokiak deusestatzeko gai da.</p> <p>12. Kohesio-elementuak identifikatzeko eta ondo erabiltzeko gai da.</p> <p>13. Testuetan agertzen diren modalizazio-markak bereizteko eta testuetan erabiltzeko gai da.</p>
KLASEKO LANA	<p>3. Gaztelaniaren eraginari loturiko transferentzi okerrak zuzentzeko gai da.</p> <p>10. Azken ekoizpena ondo planifikatzeko gai da.</p> <p>11. Talde-lanetan errespetuz eztabaidatzeko eta besteen iritziak onartzeko gai da.</p> <p>14. Hizkuntzari buruz hausnartzeko gai da.</p> <p>15. Ikaskideek esaten dutena errespetatzeko gai da.</p> <p>17. Ikaskideak kritikatzeko eta kritikak onartzeko gai da.</p>

3. DBH: PROBA EREDUA

EMAITZAREN % 30

1. Irakurri honako testu hau eta galderak erantzun.

Dirua behar al dute?

Herrialde garatuek diru gehiago luzatu diete lurralde ez garatuei, baina nahikoa al da? Eta herrialde garatu eta aberatsen lehendakariak zer nahiago dute, dirua izan edo milaka pertsonen bizitza, bizi kalitate eta bizi baldintzak hobetzea. Nik uste dut diru laguntza edo giza laguntza gehiago behar dutela.



Hasteko, haien etxeak ez dira batere onak, guk luxuzko etxeak izan ditzakegun bitartean. Ez dira batere sendoak, etxe-abereen hondakinekin eginak egoten baitira, horregatik, urtero jende pila bat hiltzen da euri garaian, uholdeetan, etxeak erori direlako.

Gainera, kilometroak eta kilometroak egin behar dituzte ur pixka bat lortzeko, guk egunero ura alferrik galtzen dugun bitartean (bainuko ur-bonbarekin, alferrik galtzen den urarekin, emanaldi batean bakarrik, Afrikako familia batek bizpahiru egunetarako ura du. Sabanan eta basamortuetan dagoen beroarekin batera eta egunero egiten dituzten kilometroak kontuan izanik, guzti horrek, askoren heriotza dakar.

Bestalde, janari ezak asko baldintzatzen ditu. Afrikan, familia askok janari bakar bat egiten dute egunean, jateko haien etxe-abereak hil behar dituzte eta, hilketa horiek kalte ekonomiko handia dakarte.

Azkenik, denok dakigunez, Afrikan milaka gaixotasun daude, gehienak hiltzaileak dira askorentzat ez dituztelako baliabiderik umeak eta helduak txertatzeko. Afrikako hainbat gunetan ume asko hiltzen dira "gastrointeritis" soil batengatik.

Pertsona askok pentsa dezake, eurek ongi baldin badaude, besteak ere ongi egon behar direla eta asko dutenek gutxi dutenei ez diete dirurik eman nahi. Onartzen dut, batzuetan diru gehiegi ematen zaiela beste herrialdeei eta horrela jarraituz guretzat agian ez dela geratuko, baina beste batzuetan ez diete ezer ematen, eta orduan nola bizi daitezke laguntzarik gabe? Gainera Afrikan 40000 haur hiltzen direla urtero ikusirik, uste duzue ez al zaie diru laguntzarik edo beste moduko laguntzarik eman behar? Hauxe egin daiteke: beti erritmo berean laguntzak bidaltzea, ez irregularki.

Laburtuz, Afrikak jasotzen duena baino askoz laguntza handiagoa behar du eta horregatik haien larruzko eserleketan eserita dauden lehendakariak zertxobait egin behar dute.

Egokituta Ibon Poveda Mugarza Iturrama institutuko ikaslea D.B.H 2 D

a. Zerk egiten du testua argudio-testu? Azal ezazu.

b. Bete honako taula hau:

TESTUA	
GAIA	
JARRERA	
TESIA	
ARGUDIOAK	
KONTRA- ARGUDIOAK	

c. Sailkatu testu-antolatzaileak:

ORDENATZEKO	
JARRAITZEKO	
BUKATZEKO ETA LABURTZEKO	
IRITZIAK EMATEKO	
ADIBIDEAK EMATEKO	
INDARTZEKO ETA ARRAZOITZEKO	
PAREKIDETASUNA ADIERAZTEKO	
IDEIAK BERRIAK ADIERAZTEKO	

2. Irakurri *Tabakoaren alde* testua honako hauek kontuan izanda eta galderak erantzun.

- ✘ testuaren egitura
- ✘ tesia
- ✘ erabilitako argudioak
- ✘ erabilitako kontra-argudioak
- ✘ testuaren antolaketa
- ✘ ...

Tabakoaren alde

Ni erretzearen alde nago. Zeren eta ez dut uste erretzea kaltegarria denik. Baina zergatik pertsona askok ez dute lantegietan eta lan egiteko lekuetan erretzen uzten? Ez dago hori onartzerik.



Askok erretzeari uzteko esaten digute, baina nire aburuz gu gure bizitzarekin nahi duguna egin ahal dugu, bakoitza bere buruaren jabe baita. Erretzaileek arrazoi gehiago ditugu erretzeari ez uzteko; adibidez, pertsona asko erretzen hasten dira oso urduri daudelako, beraz, esan dezakegu tabakoa erlaxatzeko botika bat dela.

Esate baterako; lana galdu duzu eta ez daukazu dirurik ezertarako, orduan erretzean hobe zaudela sentitzen duzu.

Sendagile guztiek erretzea osasunerako kaltegarria dela esan ohi dute: zeren eta tabakoak nikotina eta beste zenbait osagai kaltegarriak eta adiktiboak omen ditu. Baina zalantzak ditut, hori egia bada zergatik mediku asko daude hospitalaren kanpoaldean erretzen? Nik daukat horretarako erantzuna; ez dela hain kaltegarria gure osasunerako. Beste batzuek tabakoaren kea kutsagarria dela esaten dute zeren eta leku itxi batean erretzen ari den pertsona batekin baldin bazaude berak adiña ke irentsiko duzu. Hori egia bada soluzio erreza dauka, erretzen duten pertsonekin ez egotea.

Hau guztia dela eta, ez dut uste erretzea osasunerako hain kaltegarria denik. Testu hau erretzaileen izenean idazten dut.

Egokituta Unai Garcia Iturrama institutuko ikaslea D.B.H 2 D

a. Bete honako taula hau:

ARGUDIAKETAREN ALDE ONAK	ARGUDIAKETAREN ALDE TXARRAK
TESTU HAU ARGUDIO-TESTU EGOKIA DELA USTE DUZU? ZERGATIK?	

- b. Esan testuko zer esapide erabiltzen ditu egileak honako hauek adierazteko:

Iritzia	Desadostasuna	Zalantza

3. Orain, aukeratu aurreko ariketetan irakurritako testuetatik bat eta oinarritzat hartu kexa-gutun bat idazteko.

KEXA-GUTUNA



	ZUZENKETA-IRIZPIDEAK	Bai/Ez	Iradokizunak
EGOKITASUNA	<ul style="list-style-type: none"> • Jasotzailea konbentzitzeko xedea du testuak • Igorlea eta hartzailearen arteko dialogoa ematen da • Testu subjektiboa da • Erregistroa bakarra eta egokia da: formala. 		
KOHERENTZIA	<ul style="list-style-type: none"> • Kexa-gutunaren atal guztiak ageri dira • Testuaren tesia argi dago • Tesiaren aldeko hainbat argudio-mota ezberdin erabiltzen dira • Tesiaren aldeko argudioak ondo garatuta daude • Kontra argudioak ondo erabiltzen ditu • Paragrafo bakoitzak ideia bakarra garatzen du 		
KOHEESIOA	<ul style="list-style-type: none"> • Paragrafoak euren artean lotuta daude • Testu-antolatzaileak eta lokailuak ondo erabili ditu • Erreferentzia galdu egiten da • Puntuazio-akatsak daude 		
ZUZENTASUNA	<ul style="list-style-type: none"> • Perpausak sintaktikoki ondo egituratuta daude • Nahaste edo akats lexikoak • Akats ortografikoak 		

UNITATE DIDAKTIKOAREN JARDUERAK BIDERATZEKO ORIENTABIDEAK

Hasteko, unitate hau proposamen irekia dela esan behar da; hau da, erabili dugun materiala (testuak, teoria...) eta proposatutako jarduerak kendu edo aldatu ditzake irakasleak, horrela uste badu. Unitatea erreferentziazko idazketa-proiektutzat erabiltzeko sortua da, eta gelan erabili eta esperimentatu ostean egin daitezkeen hobetzeko aldaketak ongi etorriak izango dira.

Unitate honen helburua argudio-testuak aztertzea eta erabiltzen jakitea da; horretarako, ikasleei kexa-gutun bat ekoiztea eskatzen zaie. Azken ekoizpen hori erakunde edo komunikabide bati zuzenduko diote, horrela lanaren praktikotasuna eta bideragarritasuna argi ikusiko dute ikasleek. Gutunaren gai posibletzat hauexek proposatzen dira: etorkinen egoera, emakumeen egoera... gai horietan sakontzeko bai tutoretza edo bai alternatibako irakaslearekin batera lan egitea lagungarria litzateke.

Dakizuenez, proposatutako ekoizpena sortzeko hainbat gaitasun (hizkuntz komunikazio gaitasunari lotutako azpigaitasunak eta baita oinarrizko gaitasunei lotutakoak ere) erabiltzea eta garatzea beharrezkoa izango zaie ikasleei. Horrek ikasleek ekoizpen-prozesu sakona eta ondo garatua burutzea eskatzen du, prozesu horretan ikasleek honako eduki hauek landu beharko dituzte azken atazari era egokian ekiteko eta horretarako beharko dituzten gaitasunak garatzeko asmoz: alde batetik, argudio-testueei lotutako edukiak (tesia, argudio-motak, kontra-argudioak...), beste alde batetik, kexa-gutuna testu-generoari lotutako edukiak (gutunaren atalak, gutun formalaren kortesia-arauak...)

Ikasleei partehartze aktiboa eskatzen zaie unitatean zehar, hiruko taldean lan egitea proposatzen zaie eta azken ekoizpenari buruzko proposamenak egin, eztabaidatu eta erabaki beharko dituzte, izan ere, lan egiteko metodologia honek ikaste esanguratsua eta izaera kritikoaren garapena baitakar. Hasteko, gutunaren gaia erabakiko dute, eta ondoren, kexa-gutunak bere helburu komunikatiboa bete dezan beharrezkoak diren beste erabaki guztiak ere eztabaidatu eta hartu beharko dituzte. Prozesu guzti horretan irakaslearen lana orientatzaile eta laguntzailearena izango da.

Esan dugunez, proiektu honetan helburu erreala duen testu baten ekoizpena da proposatzen duguna; horretarako elkareraginaren bitartez eta hizkuntza bera erabiliz, ikuspegi komunikatibotik abiatutako metodologia da nagusi unitate honetan, hauexek dira metodologia horren ezaugarriak:

- Benetako erabilera adierazten duten testuak aztertuko ditugu.
- Testuak ulertzeko eta ekoizteko jarduerak dira nagusi.
- Edukien aukeraketa eta sailkapena ataza komunikatiboaren aberakoa da.
- Benetako erabilera eta erabilera horren hausnarketari esker ikasiko dute ikasleek.
- Irakasleak euren ikasketa-prozesuaren partehartzaile aktiboak dira eta irakaslearen lana prozesuaren orientatzailea eta motibatzailea izatea da.

- Ebaluazioa ikasketa-prozesuaren atal bat da.

Proposamen hau euskarri digitalean erabiltzeko prestatuta dago; hala eta guztiz ere, unitate osoa paperean imprimatu eta erabiltzeko aukera duzue eta bertan proposatutako baliabide digitalak ikusteko kanoia erabil dezakezue.

Amaitzeko, komenigarria litzateke ikasturte batean sortutako azken ekoizpenak hurrengo ikasturteetarako material gisa erabiltzea, benetako materiala baita eta gainera ikasleen mailatik hurbil egongo dena.

Motibazio- eta negoziazio-jarduera/ 0. jarduera (saio 1)

Jarduera hau gaiari buruzko interesa eta eztabaida sortzeko proposatzen dugu. Hiru edo lau taldean egiteko pentsatuta dago.

Lehenengo zatian, ikasleek denon babeserako dauden hainbat erakunde ezagutuko dituzte: Arartekoa, Nazio Batuak, Amnistia Internacional, Konsumitzaileen Erakundea eta Udaletako Kexa-zerbitzua.

Ondoren, gaur egun dauden egoera bidegabe batzuei buruzko azalpenak entzun eta erakunde bati bidaltzeko kexa-gutun bat idazteko gai posibleak planteatuko dituzte.

NORI ZUZENDUTA	GAI POSIBLEAK
ARARTEKOA	Lehen emakume boto-emaileak: ■ Emakumeen egoera munduan ■ Gure gizartean, berdintasuna al dago?
NAZIO BATUAK	Urrutiko Esklabuak: ■ Lurralde garatuko empresak lurralde ez-garatuko langileak ■ Langileen baldintzak
AMNESTY INTERNATIONAL	Heriotz zigorra ■ Heriotz zigorra indarrean duten herrialdeei boikota ■ Zigorren gogortasuna eta delitu kopuruaren arteko lotura
KONTSUMITZAILEEN ERAKUNDEAK	Hotelean haurrak debekatuta ■ Diskriminazio-tratua leku pribatuetan ■ Umeen heziketa
UDALETAKO KEXA-ZERBITZUA	Trafiko-isunak oinezkoei ■ Zigorren gogortasuna eta delitu kopuruaren arteko lotura ■ Isunak, balio al dute?

Gero, gizartean nahiko zabaldua dagoen topikoa, kexatzeak ez duela ezertarako balio, deuseztatzen ahaleginduko gara. Pisuzko arrazoiak erabiltzen badituzte, behar den moduko argudiaketa prestatzen badute eta behar den erakundeari bideratzen badiote, helburua lortzea posible izango dela ulertu behar dute.

Amaitzeko, negoziazio atala dugu, ikasleek azken ekoizpena burutzeko zer beharko duten aztertu eta hausnartuko dute. Jarduera honek zer dakiten ebaluatzeko balio du ere. Ikasleek ezin dute askorik kendu taulako

proposamenetatik; agian, beste proposamen batzuk erantsi ahal izango dituzte. Kentzekotan, ebaluatzeke proposamen batzuk ken ditzakete.

1. LAN-SEKUENTZIA. ARGUMENTATZEA, ZER DA?

Lan-sekuentzia honetan, argudio-testuen ezaugarri behinenak aztertuko dituzte ikasleek. Gaztelaniako unitatearen osagarria da, gaztelaniaz eta euskaraz argudiaketari buruzko terminologia bateratzeko balio baitu. Honezkerok ikasleek jakingo dutenez, argudio-testuaren ezaugarri bereizgarriena helburua da eta horrekin lotuta beste hainbat ezaugarri ditugu: izaera dialogikoa, tonu subjektiboa...

Iragarkiak gure inguruan egunero agertzen diren argudio-testuak direla ikusiko dute; izan ere konbentzitzea dute helburu, aparteko argudio-genero mota bat osatzen dute, nahiz eta euren ezaugarriak aztertzen sartuko ez garen; horretarako, beste unitate oso bat beharko baigenuke.

Argudiaketa on batek tesi argia eta testu ondo egituratua eskatzen duela ikasiko dute. Horretarako, ondo egituratutako eta argi idatzitako argudio-testu bat eta txarto egituratutako eta akatsekin idatzitako beste bat alderatuko dituzte.

Testuaren sarreran gaia aurkezten du eta harekiko igorlearen tesia: eman al diezaiokegu kirol izena izakien heriotza dakarren jarduera bati?

Tesia defendatzeko argudioak eta kontra-argudioak:

Tesiarekin bat datorren konklusioa aurkezten du: sufrimendua eta heriotza dakarrenez, ehiza giza ikuspuntutik ez da bidezkoa.

Ehiza, hiztegiak dioenez, animaliak atzematea edo hiltzea helburu duen jarduera da. Ehiztariek, hizkuntza gehiago zainduz, ehiza kirol noblea dela diote, eta Naturaren miresle, maitale eta aldeko aitortzen dute euren burua. Gauzak horrela, galdere bat luza nahi nieke ehiza zale guztiei: Eman diezaiokegu "kirol" izena izakien sufrimendua eta heriotza dakarren jarduera bati?

Natura eta beraren gozamina gizaki guztiena da, eta ez soilik batzuen. Animaliak hiltzean, besteoi animalia horiek bizirik ikusteko, beren agerrera gozatzeke, eta, ikusi ez arren, basoan badirela pentsatzen dugun pozerako eskubidea zapaltzen digute ehiztariek. Gainera, ehiztariek naturaren aurrean azaltzen duten jabetza lapurretazkoa da, animalia hil eta beraientzat gordetzen baitute.

Egia da, lizentzia bat ordainduz, legeak ehizarako eskubidea ematen diela ehiztariei. Baina astakeria deritzat arrazoi hori euren alde erabiltzeari. Ez dezagun ahatz legeak dioten guztia ez dela beti zilegi izaten. Erromatarren garaian, adibidez, gladiadoreen arteko borroka hilgarriak legezkoak ziren, duela gutxi arte esklabismoa ere leku askotan legezkoa zen bezalaxe, baina hala ere jende askok zekien ez zegoela horretarako eskubiderik.

Aspaldiko garaian bizitzeko beharrak bultzatzen zuen gizakia ehiza egitera, horri esker jaten baitzuen. Gaur egungo ehiza, ordea, erabat bestelakoa da. Janaria lortzeko betekizun zahar hura jadanik ez dago. Animalien atzetik joan eta beraiek hiltzeko atsegin berezi —eta zergatik hitz egokiaz ez esan— sadikoak bultzatzen du soilik egungo ehiza.

Eta horren guztiaren aurrean, norberaren plazerra lortzeko beste izaki bizien sufrimendu eta heriotza dakarren "kirol" hori giza ikuspuntutik zilegi eta moral ote den galdetzeko ordua dugu guztiok, legezkoa, hau da, lege zaharkitu eta zentzugabe batzuen barrukoa bada ere.

KINTANA, Xabier, Habe, 1989 (Egokitua)

5. testua

Ez du tesi argirik, jendearen iritzia azaltzen du.

Etorkin multzo konkretu bat nolako baldintzetan datorren azaltzen du, baina orokortu egiten du.


Etorkinekiko jarrera nolakoa da eta horri buruzko bere iritzia azaltzen du

Konkusiora heltzeko **ez du argudiorik erabiltzen.**

ETORKINAK ESPAINIAN

Jendeak etorkinei buruz iritzi desberdinak ditu. Batzuk esaten dute etorkinak Espainiara etortzen direla guri dirua kentzera eta lapurreta egitera, beste batzuk ordea, lana aurkitzera gero bere familia mantentzeko.

Iritzi horiek oso desberdinak dira, baina biak egia esaten dute. Etorkin batzuk txalupetan etortzen dira, baina beste batzuek hiltzen dira ahaleginean. Gehienak, Kanariar Uharteetan lehorteratu egiten dira. Gurutze Gorrikoak zaindu eta sendatzen dituzte, batzuk Espainian geratzen dira, beste batzuk bere herrialdetara atzera bidaltzen dituzte.



Egon dira arrazismo kasu asko, arrazista den jendea etorkinak hiltzen dituzte beste herrialdetakoak direlako. Nik hori txarto ikusten dut, zeren arrazistak ez dute ikusten etorkinak pasatzen ari dutena: morroitzat hartzen dituzte lan egiteko, lan egiten eta ezer gutxi kobratzen, etab.

Argazki honetan ikusten da etorkin bat kalean CD-ak eta gerrikoak saltzen.

Etorkinak bere herrialdera berriro joateko, pasaporte behar dute, eta izugarrizko ilarak egin behar dituzte dokumentuak eskuratzeko. Batzuk ezin dute, ez dutelako lanik egiten eta beste batzuk suertez lortzen dute.

Esan nahi dudana, etorkinak ez direla guk ikusten ditugun bezala, batzuk ondo egiten dute bere bizimodua.

Ibaizabal BHI DBH 3 ikasleen iritziak

2. LAN-SEKUENTZIA. TESIA ETA ARGUDIO-MOTAK

Lan-sekuentzia honetan, argudio-testu on bat ekoizteko oinarrizko kontzeptu batzuk aztertuko dituzte ikasleek. Hasteko, ikasleek gaia eta tesia bereiztuko dituzte, argi geratu behar zaie argudio-testuak iritzi argia azaldu behar duela, erdibidean geratzea ezinezkoa dela.

TESIA

Igorleak gaiari buruz daukan iritzia edo ikuspuntuaren adierazpena da. Tesia adierazteko baiezko esaldi osoak erabiltzen dira, non argumentazioaren hitz-gakoak agertzen diren. Esaldiak argiak, zuzenak eta testuan erraz ikusteko modukoak izan behar dira.

	Zein da gaia?	Zein da tesia?
6. testua	Sakeleko telefonoa	Ezinbestekoa da gaur egun
7. testua	Sakeleko telefonoa	Oso ondo dator sakelakoa edukitzea
8. testua	Sakeleko telefonoa	Nik uste dut engainu hutsa dela

Gero, tesiaren aldeko argudio-motak ikusiko dituzte, adibide onargarriak eta ez onargarriak direnak aztertu ere, horrela, besteen iritziei jarrera kritikoarekin egingo diote aurre.

ARGUDIOAK

Argudioak igorleak bere tesiaren alde, hau da tesia indartzeko, ematen dituen arrazoiak dira.

Eraginkorrak izan daitezzen arretaz aukeratuak izan behar dira eta ondo adierazita egon behar dira; horrela ez balitz, gerta liteke tesia baliogabetzea.

Argudioak garatzea komeni da (argudio bakoitzak bigarren mailako ideietan adarkatu daiteke) eta garrantziaren arabera sailkatzea.

Autoritate argudioa

Defendatzen ari garenen antzeko iritzia duten ikerlariek, adituek eta sinesgarriak diren erakundeek esandakoak biltzen dira bertan.

Tradizioaren argudioa

Gure gizarteak modu zabalean onartzen duen ideia defendatzen da (gehiengoa oker ez dagoela suposatuta, eta horrek sarritan topikoak formulatzera garamatza) edo gizarteak baliozkoak onartu dituen jakintzak (aurre-suposizioak).

Kausa-eraginaren argudioa

Gertakari beten arrazoiak aurkezten dira, kausak egiaztatuta (nolabaiteko zorrotasun zientifikoa behar dute).

Esperientzia pertsonalaren argudioa

Bere esperientziak jartzen ditu arrazoi edo argudio gisa hartzaileak. (Ez da zorrotzegia, eta partziala izateko joera ere badu).

Analogiazko argudioa

Gertaerak, pasadizoak, arazo partikularrak... kontatzen ditu argudioa eraikitzeko.

Argudio afektibo-erotiboa

Hartzailea hunkitzeko moduko baliabideak erabiltzen ditu igorleak, errukia, ongura, eta abar, eragiten duten sentimenduzko efektuak baliatuta.

Adibideen bidezko argudioa

Konparazioa edo metafora oinarrian duela osatzen den argudioa: adibideak emateko era honekin arrazoitu nahi den antzeko kasu bati egiten zaio erreferentzia.

Gai bati buruz aldeko eta kontrako jarrerak egon daitezkeela ikusiko dute, eta denak izan ditzaketela pisuzko argudioak jarrera bakoitzaren alde. Hori dela eta, argudiaketa prestatzeko orduan kontrako iritzikoen argudioak aurreikusten badituzte kontra-argudiatzeko aukera izango dute.

Antzerkia, ikuskizunaz gain, norberaren ikaskuntzarako bitarteko eraginkorra dela esan dezaket. Antzerki-zaletasunak eragin zituen nire ezagutzetako asko.

Esperientzia-pertsonalaren argudioa

Errepideetako ezbehar-kopurua gero eta gehiago hazten ari da alkoholaren gehiegizko kontsumoa, gidatze ausartegia, eta aurreratze okerrak tarteko, eta erraz asko froga daiteke hori.

Kausa-eraginaren argudioa

Krisialdian normala da lanpostu gutxiak gizonei esleitzea, betidanik izan baitira familiaren sostengua.

Tradizioaren argudioa

Green Peace-k dioenez, Frantziako gobernuak Mururoan egiten ari den probak ingurumenerako eraso itzulezinak dira.

Autoritate argudioa

Ur asko alferrik galduta bainatzen gara gure gizartean; hirugarren munduko familia batek bere premiak bete ahal izango lituzke ur horrekin.

**Argudio afektibo-
emotiboa**

Argumentazioan falaziak erabiltzen dira askotan, falaziak arrazoibidean eman daitezkeen akatsak dira, balio ez dituzten argudioak. Interesgarria da ikasleentzat falaziak zer diren eta zer motatakoak diren ezagutzea, alde batetik argumentazioan akatsik ez egiteko eta benetako balioa eman diezaioten argudioei, beste alde batetik solaskideen argumentazioan falaziak identifikatzeko gai izan daitezen, horrela, horien argudioak deuseztatu eta kontra-argudiatzeko gai izan daitezen.

ARGUDIO EZ ZUZENAK EDO FALTSUAK	MOTA
Athletiko kapitainak negutegi efektuarena asmakeri hutsa dela dio, eta arrazoi osoa du.	Igorlearen ospea erabiltzea
Ez pasa inoiz aldamio baten azpitik, zoritxarra besterik ez dakar eta! Lehengoan gazte bat pasa zen, eta arratsaldean orkatila bihurrituta eraman zuten hospitalera.	Kausa-ondorio harreman faltsuak ezarri
Mesedez, ez jarri isunik! Bi ume txiki ditut eta langabezian nago.	Hartzaileen sentimenduetara jotzea
Edatea ez da hain txarra! Auzokideak botela bat ardo edaten zuen egunero eta 100 urtera heldu zen.	Partikularra dena ,maila orokorrean ezartzea
Zentral nuklearren aurkakoak sasiekologistak dira: uste handi eta jakinduria gutxi.	Irain eginez
...	

Lan-sekuentzia honetan, gaztelaniako unitatean mahai-inguruari buruz ikasi dutena praktikan jarri eta mahai-inguru bat prestatzea proposatzen zaie, gaztetxei buruzko mahai-ingurua; baina, momentuan gaurkotasuna duen edo ikasleentzako interesgarria den beste gairen bat badago, gaia aldatzea proposatzen dugu, ikasleen inplikazioa handiagoa izango baita.

Amaitzeko, bai kexa-gutuna eta bai mahai-ingurua prestatzen hasiko dira ikasleak: gaiak aukeratuko dituzte, gaien aurrean dituzten jarrerak, defendatuko dituzten tesiak eta tesien aldeko argudioak argituko dituzte.

3. LAN-SEKUENTZIA. KEXA-GUTUNA NORENTZAT

Hartzailea nor den oso inportantea da eta ikasleek argi izan behar dute egoera bakoitzean hizkuntza egokitu behar dutela. Hizkuntza formala eta informalararen adibideak aztertuko dituzte, horien arteko aldeak, lexikoari erreparatuz.

Gutun formaletan erabiltzen diren formulak aztertuko dituzte, kortesia formulak.

Hizkuntza ezberdinetako siglak erkatuko dituzte eta hizkuntza horiei buruzko hausnarketa egingo dute.

Aztertu siglen azpiko hitz-multzoak eta hizkuntzak elkarrekin erkatu. Honela adibidez:

	Lexikoa: alde handia/txikia	Ordena: alde handia/txikia	Preposizioen erabilera: alde handia/txikia
Euskara-gaztelania			
Gaztelania-ingelesa			
Euskera-ingelesa			
Gaztelania-frantsesa			

**Zein hizkuntzen artean ikusten
duzue alderik handiena?
EUSKARA-GAZTELANIA
EUSKARA-FRANTSESA**

**Eta zein hizkuntzen artean
ikusten duzue alderik txikiena?
GAZTELANIA-FRANTSESA**

Ikasleek hizkuntzen arteko alde eta antzekotasunetaz hausnartuko dute. Interesgarria litzateke euskarak eta ingelesak dituzten antzekotasunetaz ohartzea: izen-sintagmaren nukleoa azken doa beti eta modifikatzaileak aurrean, ez dituzte preposizioak erabiltzen izen-multzoak egiteko nahiz eta batzutan euskaraz flexioa erabili.

4. LAN-SEKUENTZIA. ARGUDIO-TESTUA IDATZIKO DUGU

Dagoeneko ikasleek badute komunikazio-egoerari buruzko informazio nahiko:

gaia: eurek aukeratutakoa (8. jarduera)

igorlea: ikasleak hiruko taldean

kanala: idatzia


helburua: kexa-gutunaren hartzailea konbentzitzea edo gutxienez ikutzea eta bere erantzuna lortzea

argitalpen lekua: aukeratutako instituzioa edo hedabidea (11. jarduera)

eremua: hizkuntza instituzioetan edo hizkuntza gizarteko komunikabideetan (10. jarduera)

Lan-sekuentzia honetan, ikasleek argudioak eraikitze lagungarria den informazioa bilatuko dute sarean eta argudio-testua ekoiztuko dute. (materialarekin batera, hainbat gairi buruzko argudio-testuen karpetatxo bat duzue). Betiko eskema jarraituz, argudio-testua sortu baino lehen orain arte lortu duten informazio guztia antolatuko dute gidoi batean eta zirriborroa idatziko dute.

Gero, idatzitako zirriborroa birpasatuko dute testuaren koherentzian, kohesioan, egokitasunean eta zuzentasunean erreparatuz. Horretarako, aurretiaz testu-antolatzaileak landuko dituzte.



Eta modalizazio-markak:

Iritzia	Desadostasuna	Zalantza
<ul style="list-style-type: none">• Noski• ...esango nuke• jakina• ...ezinbestekoa da• ...harrigarri litzateke• nire aburuz... ...deritzot• argi eta garbi dago	<ul style="list-style-type: none">• (hau) defendatzea ulertezina da• ...ohiz kanpoko da• ...ez dago onartzerik• (hau) esatea zentzugabekoa da• (hau) pentsatzea kontraesana da	<ul style="list-style-type: none">• baliteke• seguruenez...• dirudienez...• zalantzak ditut• omen

Hona hemen modalizazio-markei buruzko azalpen sakonagoa Elkarreko liburutik hartuta.

... / ...

B) MODALIZAZIO-MARKAK

Igorleak esaten duenarekiko azaltzen duen **jarrera** islatzen duten adierazpideei modalizatzaileak deritze. Oro har, bi jarrera azal ditzake igorleak esaten duenarekiko: **ziurtasuna** eta **probabilitatea**. Ikus ditzagun jarrera horiek testuan islatzen dituzten modalizazio-marka batzuk.

1. Iritzi-aditzondoak

Probabilitatea	Ziurtasuna
Agian	Dudarik gabe
Beharbada	Benetan
Itxuraz	Nahitaez
Akaso	Ezinbestean
Seguru aski / seguru asko	Zalantzarik gabe

2. Ondokoak bezalako adierazpideak

Probabilitatea	Ziurtasuna
Litekeena da... -t(z)ea	Jakina denez
Baliteke... -t(z)ea	Argi egon
Itxura denez, dirudenez	Begi-bistakoa izan / nabaria izan
Uste izan, pentsatu, suposatu, susmatu	Ziur / seguru egon
Omen	Denok dakigu... -la
...lakoan nago	Ez dago zalantzarik

3. Aditz modua

Hiztunak aditzaren bidez adierazitako gertakizunari buruzko jarrera islatzen du aditz moduak.

1. Ziurtasuna adierazteko

1.1. **INDIKATIBOA**. Aditz modu honen erabileraren bidez, igorleak baieztapenak egiten ditu:

*Konsumitzaileen artean, elikagaiari buruzko kezka **sortzen dira** maiz. Infor-
mazio ugaria eta era askotarikoa **iristen zaio** konsumitzaileari, baina
batzuetan iturriak nola-halakoak **dira** eta kontraesanak **azaltzen dira**.*

1.2. **AHALERA**. Etorkizuneko ekintza baten gertagarritasuna benetan posible dela baieztatzen du igorleak **ahalera errealaren** erabilerarekin:

*Gai hori eztabaidagarria **izan daiteke**.
Edonork **ikus dezake** ezinezkoa dela hori.
Nire intzia edonori eman **diezaioket**.
Intziari eusteko arrazoiak **aurki ditzakete**.*

Ohar zaitetz aditz nagusia **aditzoin** gisa agertzen dela ahaleran: eros, ekar, erabil, ikus, har...

... / ...

EREDUA AZTERTZEN
ARGUDIO-DISKURTSOAK

... / ...

2. Ziurtasun eza edo probabilitatea adierazteko

AHALERA. Etorkizuneko nahiz iraganeko ekintza baten gertagarritasuna posible dela edo zela adierazten du igorleak **ahalera irrealaren** erabilerarekin.

a 1 Etorkizuneko ekintza jakin bat burutzeko posibilitatea adierazteko:

Gerta lekiok zaila daukan arazoari aurre egitea.
Harremanetan jartzeko dei geniezaiok telefonoz.
Beranduago etor ninteko.

b 1 Iraganeko ekintza baten gertagarritasuna posible zela baina ez zela gauzatu adierazteko:

Nire iritzia eman nezakeen (baina ez nuen eman).
Etterako bidean elkar gintezkeen (baina ez ginen elkartu).
Arazoi hobeak eman nitzakeen (baina ez nituen eman).

Ohar zaitez aditz nagusia **aditzoin** gisa agertzen dela ahaleran: eros, eka, erabil, ikus...

- Sarritan arazoak izaten ditugu aditzoinaren forma zehazteko. Zein forma da zuzena?
 - *Apal hori hustu daiteke.*
 - *Apal hori hus daiteke.*
 - *Apal hori huts daiteke.*

Hona mota horretako zalantzak argitzen lagunduko dizun koadroa.

Partizipioa	Aditzoina
Pentsatu	Pentsa
Mugitu	Mugi
Hartu	Har
Sortu	Sor - Sortu
Hustu	Huts - Hustu
Zorroztu	Zorrotz - Zorroztu
Sinetsi	Sinets
Erori	Eror
Bete	Bete
Egin	Egin
Erosi	Eros
Konpondu	Konpon
Bidali	Bidal
Esan	Esan
Aurkitu	Aurki

<http://www.elkarlanean.com/ostadar/ostadar2-euskara-literatura-2ud.pdf>

5. LAN-SEKUENTZIA. KEXA-GUTUNA EKOIZTEN

Azken lan-sekuentzia honetan, kexa-gutunak duen itxura eta izan behar dituen derrigorrezko atalak aztertuko dituzte. Interesgarria litzateke atalak banan-banan aztertzea eta dituzten ezaugarriak ulertzea. Batzuk, agurren atalen kasu, ikasleek dagoeneko egin dituzten jardueretan aztertuta daude.

Amaituta dagoenean honako zuzenketa-orri hau izango dute ikasleek ikaskideak ebaluatzeko.

	ZUZENKETA-IRIZPIDEAK	Bai/Ez	Iradokizunak
EGOKITASUNA	<ul style="list-style-type: none"> Jasotzailea konbentzitzeko xedea du testuak Igorlea eta hartzailearen arteko dialogoa ematen da Testu subjektiboa da Erregistroa bakarra eta egokia da: formala. 		
KOHERENTZIA	<ul style="list-style-type: none"> Kexa-gutunaren atal guztiak ageri dira Testuaren tesia argi dago Tesiaren aldeko hainbat argudio-mota ezberdin erabiltzen dira Tesiaren aldeko argudioak ondo garatuta daude Kontra-argudioak ondo erabiltzen ditu Paragrafo bakoitzak ideia bakarra garatzen du 		
KOHEESIOA	<ul style="list-style-type: none"> Paragrafoak euren artean lotuta daude Testu-antolatzaileak eta lokailuak ondo erabili ditu Erreferentzia galdu egiten da Puntuazio-akatsak daude 		
ZUZENTASUNA	<ul style="list-style-type: none"> Perpausak sintaktikoki ondo egituratuta daude Nahaste edo akats lexikoak daude Akats ortografikoak daude 		

DENBORALIZAZIOA

Jarduerak	Denbora
0. jarduera. Motibazioa eta negoziazioa	Saio 1
<p>1. lan-sekuentzia. Argumentatzea, zer da?t</p> <p>1. jarduera. Testuak aztertzen. 2. jarduera. Argumentatzea, zer da? 3. jarduera. Argudio-testuak aztertzen.</p>	3 saio
<p>2. lan-sekuentzia. Tesia eta argudioak</p> <p>4. jarduera. Zer defendatuko dugu? 5. jarduera. Gure argudioak, zeintzuk dira? 6. jarduera. Arrazoi guztiak balio al dute? 7. jarduera. Argudioei aurre egiten. 8. jarduera. Zuen tesiak eta argudioak, zeintzuk dira?</p>	5 saio
<p>3. lan-sekuentzia. Kexa-gutuna, norentzat?</p> <p>9. jarduera. Testuaren egokitasuna. 10. jarduera. Egokitasuna eta gutunaren atalak. 11. jarduera. Kexa-gutun formala, norentzat?</p>	3 saio
<p>4. lan-sekuentzia. Argudio-testua idatziko dugu</p> <p>12. jarduera. Informazioa bilatu. 13. jarduera. Gure argudio-testua. 14. jarduera. Kohesio-elementuak 15. jarduera. Modalizazio-markak. 16. jarduera. Egindakoa birpasatu.</p>	5 saio
<p>5. lan-sekuentzia. Kexa-gutuna ekoizten</p> <p>17. jarduera. Kexa-gutun formala, nolakoa da? 18. jarduera. Lehen zirriborroa. 19. jarduera. Azken ekoizpena.</p>	3 saio
Ebaluazioa	20 min.